



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko otsailaren 25a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Antsoingo abortu-klinika kontraforu deklaratzeko duena. Proposamenaren testua (6. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, enplegu publikoaren gaineko politika orokorrari eta horrek herritarrentzako oinarritzko zerbitzuetan dituen ondorioei buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egin (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da indargabetu ditzan mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako laguntzak eta prestazioak murrizten dituzten foru aginduak. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat presta dezan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mantentzeko ditzan ingelesa ikasteko bekak Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da manten dezan Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa (Evena), sektorearen eta Nafarroa Jatorrizko Deituraren garapenaren zerbitzuan dagoen entitate publiko gisa. Mozioa erretiratzea (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu 24 sahararren aurka Rabateko auzitegi militar batek egindako epaiketa politiko-militarra, nazioarteko araudia urratu duena eta torturapean lortutako aitortpenetan oinarritu dena. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuak San Juan de Dios Ospitalearekiko itunerako dituen planei buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Donejakue autobidea eta Errioxa lotzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak duen informazioari eta eginiko zuzemenei buruzkoa, Gregorio Galilea Arazuri jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7aren tributuek esleipena arautzen duen Parlamentuaren agindua betetze aldera eginiko urratsei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (16. or.).
- Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak aurrekusi ote duen egiaztagiriak lortzeko deialdi bat egitea, egun langileak direnak osasun larrialdietako teknikari gisa kualifikatze aldera, eta titulazio hori Nafarroako BHIetakoren batean emanen den. Pedro Rascón Macías jaunak egina (17. or.).
- Galdera, zerga-erregularizaziorako prozesuaren balantzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaiola jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko eta Ubarmin Klinikako gosarien eta askarien finantziarioari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak Goi Mailako Kontserbatoriora eta Kontserbatorio Profesionalera eginiko bisitei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (19. or.).
- Galdera, Errokariko elektrizitate-hornidurari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2013-2014 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (20. or.).
- Galdera, Nasertic enpresa publikoaren jardueri buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (21. or.).
- Galdera, produktuen zuzeneko salmentarako bidea ematen duen legearen garapenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak Vázquez de Mella HLHIPko zuzendaritza-taldeak, gutun bidez, igorritako proposamenaren berri ote duen, non Sarrigurenen bizi diren eta Haur Hezkuntzako 1. mailan eskolatzeko adinean dauden umeei ikaspostu bat eta bestelako abantailak eskaintzen zaizkien. Galdera erretiratzea (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-taldea, zenbait azpiegitura aztertzeko, zalantzarako errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dienekoak. Akats zuzenketa (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarri- ei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2013ko urtarrilaren 24an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen abenduaren 28ko 2/2012 Foru Lege-dekretua baliozkatzzea, eta Foru Lege-dekretu hori foru lege proiektu gisa izapidetzea. Foru Lege-dekretua 2013ko urtarrilaren 18ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. eta 161. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen Foru Lege proiektua presako prozedurari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Sustapen Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **zortzi egun balioduneko epea hasiko da, eta 2013ko martxoaren 8an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 161 artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarri- riei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio etxebizitza babestuak eta haien eranskinak saldu eta errentan emateko gehieneko prezioak ezartzea. Prezio horiek foru legean zehazten diren modulu ponderatuen eta ponderatu gabeen arabera ezartzen dira urtero, eta haien kalkulua aipatutako artikuluan azaltzen den formula erabiliz egiten da.

2012ko abenduaren 18an, Comptos Ganberak "Etxe babestuen moduluari buruzko fiskalizazio txostena (2005-2012)" eman zuen, eta horren ondorioak eta gomendioak Parlamentuko talde guztiekin aztertu beharko ditugu.

Zehazki, moduluak ezarri eta eguneratzeari dagokionez, Comptos Ganberaren txostenaren ondorioa hau da: "Moduluak erabakigarria da etxebizitzaren salmenta eta alokairuko prezioan, eta beraz, hura ezartzeko eta eguneratzeko oso kontuan hartu behar dira ondotik aipatzen diren alderdiak, are gehiago gaur egungo egoera ekonomikoan, krisiak langabe kopuru handia eta finantzabideak topatzeko zailtasunak eragin baititu:

a) Etxebizitza babestua eskatzen dutenen egoera; kontuan hartu beharra dago salmenta eta alokairuko prezioa igotzeak larriagotu egingen lukeela etxebizitza eskuratzeko arazoa, eta ahalegin handiagoa egin beharra ekarriko luke errenta apalagoak dituzten herritarren kasuan, etxebizitza librea erosi edo errentan hartzeko adinakako diru baliabiderik ez dutenen kasuan alegia.

b) Eraikuntzako sektorearen egoera; izan ere, etxebizitza babestuaren prezioak bide eman beharko du etxebizitza sustatu eta eraikitzen dute-

nek etekin zentzuzkoa lor dezaten, jarduera ekonomikoan berebiziko garrantzia duen sektore horren jarduera motelarazi gabe.”

Bestetik, fiskalizazio organoak dioenez, “kome-ni litzateke modulua eguneratzeko formula azter-tzea, aintzat hartzeko, besteak beste, eraikuntzan erabiltzen diren material berriak, lan-eskuaren tratamendua eta KPIren zehaztapena. Egungo for-mulak dagoeneko indarrrik ez duen formula batean du jatorria, eta gainera, modulua nabarmen igotze-ko aukera ematen duenez, hau bezalako krisi garaietan ere, etxebizitza babestua eskuratzeko zailtasunak areagotu ditzake.”

Moduluak ezartzeko formularen aplikazioaren emaitzak ez dira seguruak oraindik; gerta daiteke igotzea eta, Comptos Ganberak egindako txoste-naren ondorioak ikusirik, ez litzateke batere kome-nigarria. Horrez gain, moduluak eguneratzeko for-mula aztertzeko gomendioa egiten du erakundeak.

Hori dela eta, beharrezkoa da 2012an indarra izan duten moduluak bere horretan uztea, bereha-la indarra hartuko duen lege mailako arau baten bidez, legez aurreikusitako formula aplikatuz moduluen igoerak ekarriko lituzkeen ondorioak saihesteko; egoera berriz aztertu beharko da Par-lamentuan azterketa egin ondoren.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua haxe ezartzen du 1. idatz-zatian:

“1. Kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroa-ko Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak eman ahal izanen ditu, foru lege-dekretu forma hartuko dutenak. Ezin izanen dira foru lege-dekre-tuaren xede izan honakoak: Foru Komunitateko erakundeen eta nafarren eskubideen, betebeharren eta askatasunen garapen zuzena, lege orga-niko honetan arautuak daudenena; lege organiko honen erreforma, eta lege hau garatzeko emanda-ko foru legeena, legean bertan espresuki aipatzen direnena, hain zuzen; hauteskunde-araubidea; eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.”

Orain arte aipatutako egoera dela eta, justifika-tuta dago foru lege-dekretu bat onestea, kasu

berezi eta oso presako bat gertatu delako, lege organikoaren artikulua hartan eskatzen den bezala.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Sustapeneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2012ko abenduaren 28an egindako bilkuran hartutako era-bakiarekin bat etorritz,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Nafarroako etxebizitza arlo-ko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaiz-kien moduluak.

1. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaien modulu pon-deratua 1.246,53 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaien modulu pon-deratu gabea 1.192,85 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

Xedapen gehigarri bakarra. Moduluak egune-ratzeko formularen hurrengo aplikazioa.

Moduluak eguneratzeko formula, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatza-ren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10. artikuluan jasotakoa, berriz aplikatzen denean, kontuan hartu beharko da ezartzeko garaian ezagunak diren azken adierazleetan urte batetik bestera izandako aldaketa.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Par-lamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamen-tura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuz-tuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra har-tzea.

Foru lege-dekretu honek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Irabazi asmorik gabeko 42 entitatek osatzen dute Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea –elkarrekin, GGKEak, laneratze eta

gizarteratze zentroak eta enpresa solidarioak–, zeina 2003tik ari den Nafarroan ekonomia solidarioa sustatzen. Sareak harremanak sendotu eta ikuspuntu ezberdinak sortzea bilatzen du, alternatiba ekonomiko posibleak, errealak, iraunkorrak eta solidarioak erraztu eta sustatzeko, gizakiarekin, gizartearekin eta planetarekin.

Ekonomia solidarioa sortu da erantzun bat eman behar izatetik ekonomiaren gizatasun-galtze gero eta handiagoari, ingurumenaren eta bizi kalitatearen narriadurari, egungo gizartean balio etikorik ez egoteari, pobrezia areagotzeari eta gizarte-desberdintasunei –zeinek bereziki eragiten baitiete emakumeei–, bazterketa sozial eta ekonomikoari, langabeziari eta kolokako enpleguari, nabarmen biderkatzen direnak krisi egoera honetan, horrenbeste gabeziak eta narriadurak erronkak sortzen baitituzte, eta erantzunak eskatzen. Eginkizun nagusia, hortaz, ekonomia solidarioa bultzatzea da, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat garatu ahal izateko tresna gisa.

Bestalde, ematen du beharrezkoa dela Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren osaera egokitzea Nafarroako gizartearen errealitate berri eta indartsuei; esate baterako, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareari.

Lehenengo artikulua. 2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. “Hogeita zortzi kide” jartzen duen lekuan “hogeita hamar kide” jarriko du.

Bigarren artikulua. 2. artikuluko 1. idatz-zatiari e) letra berria eranstea. e) letra: “Bosgarren taldeak Foru Komunitateko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sektoreko bi kide izanen ditu.”

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Antsoingo abortu-klinika kontraforu deklaratzeko duena.

PROPOSAMENAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen herriaren legegintza-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Antsoingo abortu-klinika kontraforu deklaratzeko duen Foru Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren ordezkaria, jakinarazpenak jasotzeko, Nieves Ciprés Aznar andrea baita. Mahaiak tramitera onartu zuen, 2012ko martxoaren 26an harturiko erabaki baten bidez.

Hauteskunde Batzorde Zentralak, 2012ko abenduaren 5ean harturiko erabakiaren bidez, Parlamentu honi igorri dio Estatistikako Institutu Nazionalako Hauteskunde Erroldako Bulegoaren Zuzendariordetza Nagusiak egindako ziurtagiria, non egiaztatzen baita aipaturiko legegintza-ekimena izenpetu dutenen sinadura baliozkodunen kopuruak gairiditzen zuela aurkeztu zen egunean autonomia erkidegoan indarrean zen erroldako hauteslearen % 1, 3/1985 Foru Legeko 1. eta 2. artikuluek behartzen duten moduan. Hori guztia kontuan izanik, aipatu Foru Lege proposamena 3/1985 Foru Legearen 3. eta 13. artikuluetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126.1d), 148. eta 149. artikuluetan aurreikusitako eran izapidetu behar da. Horretarako, legegintza-ekimenaren Sustapen Batzordeak kide bat izendatu beharko du, proposamena Legebiltzarreko Osoko Bilkuran defenda dezan aintzat hartzeko eztabaidan.

Hori horrela, aplikatzekoa den araudiarekin bat, ERABAKI DA:

1. Agintzea Antsoingo abortu-klinika kontraforu deklaratzeko duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Aipatu legegintza-ekimenaren Sustapen Batzordeari eskatzea bere kide bat hauta dezan, Foru Lege proposamena defendatzeko Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren aurrean proposamena, aintzat hartzeko eztabaidan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an.

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Antsoingo abortu-klinika kontraforu deklaratzeko duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroan abortu-klinika egoteak interesa eta ika-mika handia piztu du foru lurralde honetan, bai bizitzarako eskubide konstituzionala urra lezakeelako, bai Konstituzioko lehen xedapen gehigarrian babesten eta errespetatzen den Nafarroaren Foru Araubidearen aurkako kontraforua ekar lezakeelako.

A. Konstituzioaren arabeko arrazoiak

Espainiako Konstituzioak II. kapituluko lehen ataleko 15. artikuluan –“Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak”– xedatzen duenez, “Denek dute bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inori ezin pairaraziko zaio, ezin kasutan, ez torturarik, ez gizatasunaren edo duintasunaren kontrako zigor edo trataturik. Ezeztatzen da heriotza-zigorra, non eta lege penal militarrek ez duten besterik xedatzen gerra-denborarako”. Konstituzioko manu horrek berekin dakar bizitzarako eskubidea eskubide konstituzional bati dela eta, hortaz, Konstituzioaren babes osoa duela. Halatan, Konstituzioko IV. kapituluko 53. artikulua –“Oinarrizko askatasun eta eskubideen bermeak”– ondokoa dio lehen idatz-zatian:

Titulu honetako bigarren kapituluan aitortutako eskubide eta askatasunek botere publiko guztiak lotzen dituzte. Legez soilik arautu daiteke, betiere funtsezko edukia errespetatuz, eskubide eta askatasun horiek nola erabili; 161.1.a) artikulua dioenaren arabera babesteko dira, betiere, eskubide eta askatasunok.

Bigarren idatz-zatian espresuki ezartzen du edozein herritarrek eska dezakeela babestu dakizkiola 14. artikuluan eta bigarren kapituluko lehen-biziko atalean aitortutako askatasun eta eskubideak auzitegi arruntetara jorik lehentasun eta sumariotasun printzipioetan oinarritutako prozeduraz, eta, hala badagokio, Konstituzio Auzitegira jorik babes errekursoaren bidez.

“Pribilegiozko” eskubide konstituzionala den aldetik, tangentialki loturiko arlo oro eta arlo horretan eragina izan lezakeen oro garatu behar-

ko litzateke lege organiko bidez; izan ere, hauxe xedatzen du du 81. artikulua:

“Lege organikoak dira oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak garatzen dituztenak... Jarraian, 2. idatz-zatian, ezartzen du lege organikoak onesteko, aldatzeko edo derogatzeko, Kongresuaren gehiengo absolutua behar dela, proiektu osoari buruzko azken bozketa batean”

Lege organiko bat dago indarrean haurdunaldiaren borondatezko etetea arautzeko, eta, horrenbestez, Konstituzioaren arabera hori garatzeko behar den modua formalki errespetatzen bada ere, argi dago arauketa materialak bete-betean urratzen duela Konstituzioaren 14. artikulua edukia; alegia, bizitzarako eskubidea. Hortaz, uste dugu aurrera atera behar dela legegintza ekimen hau, ekidite aldera Nafarroan aplikatzea Estatuko arau zeharo konstituzio-kontrako hori.

B.- Foru arrazoiak.

Lehena. Gure zuzenbide zibilaren oinarri den Nafarroako Foru Berriaren Zioen azalpenak deklaratzeko du familiaren egitura eta legitimitatea, bai eta etxe-unitatea ere, nortasunaren beraren eta ordena ororen oinarri direla.

Bigarrena. Bigarren legearen arabera, Nafarroan “ohitura” da zuzenbidearen iturri, eta 3. legeak agintzen du “ohitura” legearen gainetik dagoela.

Eta ohitura da, Nafarroan, herritar babesgabe bat hiltzeko klinikarik ez egotea. Hartara, bada, aipatu klinika irekitzeko udal lizentziak eta Gobernuaren baimenak erabat deusezak direla, gailendu behar den ohituraren aurkakoak izateagatik.

Hirugarrena. Laugarren Foru Legeak xedatzen du printzipio orokor direla Zuzenbide Naturalaren edo Historikoarenak, Nafarroako antolamendu zibil osoa informatzen dutenak eta beren xedapenetatik heldu direnak.

Eta Zuzenbide Naturalak eragozten du Nafarroan abortu-klinika bat jartzea, zuzenbide hori urratzen duelako; horrenbestez, erabat deusezak dira aipatu lizentziak eta baimenak.

Laugarrena. Nafarroako Foru Berriko 63. Foru Legeak hauxe agintzen du: “Era berean, gurasoei

dagokie ernalduta baina jai gabe dauden seme-alaben interes edo igurikimenak defendatzea, bai eta ernalduta gabe daudenenak ere”

Bosgarrena. Ezin dira zuzenbide osagarri gisa aplikatu 6. Foru Legeak aipatzen dituen Espainiako Lege Orokorrak; izan ere, 5. Foru Legeak xedatzen du zuzenbide osagarria aplikatu baino lehen Nafarroako berezko zuzenbidea integratu beharko dela, berorren xedapenen hedatze analogikoa zentzuz eginez.

1. artikulua. Ezin izanen dira lizentziak eman Nafarroan haurdunaldiaren borondatezko etetea edo abortua egiten diren klinikak eraikitzeko edo ustiatzeko, eta hori ez da eragozpen izanen kliniketan osasun-jarduerak garatu ahal izateko.

2. artikulua. Indargabetuta gelditzen dira Antsoainen (Nafarroa) eraikitako abortu-klinika instalatzeko, eraikitzeko, ustiatzeko eta haren jarduerak garatzeko emandako lizentzia eta baimen guztiak; hartara, aipatu klinikan ezin izanen da abortu-praktikarik egin.

Hauek dira aipatu lizentzia eta baimenak:

2011ko otsailaren 24an proiektua aurkeztu zitzaion Nafarroako Gobernuari.

2011ko martxoaren 4an, udal arkitektoak aldeko txostena egin zuen, jarduera eta obra lizentziak emateari dagokionez.

2011ko martxoaren 7an, udal espedientea izapidetzea erabaki zuen Antsoaingo alkateak.

2011ko martxoaren 17an, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak baietsi zuen klinikak baldintzak betetzen zituela.

2011ko apirilaren 7an, Osasun Publikoaren Institutuaren txostena sartu zen Antsoaingo Udalaren erregistroan; txostenean, proiektuan zenbait jarduketa egiteko gomendioa ematen da.

2011ko maiatzaren 23an, Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen.

2011ko irailean, Antsoaingo Udalak irekitzeko lizentzia eman zuen.

2011ko urrian, Antsoaingo abortu-klinika ireki zen.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testuategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testuategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta presako prozeduraz eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testuategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testuategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Hainbat elkartek, organizaziok, taldek eta erakunde publikok –besteak beste, Nafarroako Arartekoak– salatu dituzte eta diskriminatzailetzat hartu dituzte zenbait negozio juridikotan jasotako klausulak, zeinen arabera zenbait prestaziotatik eta zerbitzutatik kanpo uzten baitira GIB/HIESa duten pertsonak. Kasurik gehienetan, hori da modu esplizitu eta banakakoan identifikatzen den gaixotasun bakarra. Bazterketa horrek, orobat, ondorioak dakarzikie ukitutako pertsonari, beren eskubide konstituzionalak normal baliatzea eragozten baitie.

Taldeen eta pertsonen bazterketa hori, bete-betean ezarria eta alde batek besteari inposatua, Espainiako Konstituzioko 9.2 eta 14. artikuluek ezartzen duten berdintasun-printzipio oinarritzkoaren aurkakotzat hartu behar da. Arau horrek hala botere publikoak nola herritarrak lotzen ditu.

Itunak ezartzeko askatasuna, zuzenbide pribatuak aldeei aitortzen diena, ezin da erabili bizitza sozialeko taldeak gaixotasun bat izate hutsagatik diskriminatzeako estaldura gisa. Askatasun zibilarren edo borondatearen autonomiaren muga dira legea, pertsonaren duintasuna eta besteen eskubideak, besteak beste nortasunari eta duintasunari berez datxezkienak, Konstituzioko 10.1 artikulua ezarritako balioak direnak.

Hortaz, lege bat behar da, ezartze aldera aldeetako bat GIB/HIESa edukitzeagatik edo seroposi-

tiboa izateagatik diskriminatzen edo baztertzen duen edozein klausula baliogabea eta eragingabea dela.

Helburu hori lortzeko proposatzen da xedapen gehigarri berri bat gehitzea Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bateginari, zeina azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsi baitzen, espresuki jasotze aldera klausula horien baliogabetasuna eta eragingarritasunik eza. Azken xedapen bat ere jarri beharra dago, urtebeteko epe arrazoizkoa emate aldera Espainiako Gobernuari, Kongresuan lege proiektu bat aurkez dezan non ezarriko baita lege hau aplikatzea harreman juridikoetan ondorio baztertzaile berberak eragiten dituztela jotzen den beste gaixotasun batzuei ere.

Artikulu bakarra. Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Errege Lege Dekretuaren bidez onetsia, honela aldatuta geldituko da:

Bat. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, egonen den bakarra. Hona:

“Xedapen gehigarri bakarra. Zenbait klausularen deuseztasuna eta eragingabetasuna.

1. Deusezak izanen dira, eta ez jasotzat hartuko dira, aldeetako bat GIB/HIESa edukitzeagatik baztertzen duten klausulak, estipulazioak, baldintzak edo itunak.

2. GIB/HIESa daukanak xedapen honetan ezarritakoari uko egiteak ere ez du baliorik izanen, eta uko egite deuseza izanen da”

Bi. Azken xedapen berri bat eransten da, honako testuarekin:

“Azken xedapenetan laugarrena. Beste gaixotasun batzuetara hedatzea.

Espainiako Gobernuak urtebeteko epean aurkeztuko du lege proiektu bat, zeinaren bidez ezarriko baita lege honetako printzipioak aplikatuko zaizkiela harreman juridikoetan ondorio baztertzaile berak eragiten dituztela iritzitako beste gaixotasun batzuei ere”

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta sinatzen diren klausula, estipulazio, baldintza eta itunei nahiz jadanik sinatuta egonik aplikatzekoak direnei aplikatuko zaie.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, enplegu publikoaren gaineko politika orokorrari eta horrek herritarrentzako oinarrizko zerbitzuetan dituen ondorioei buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkezturiko jabeldura, enplegu publikoaren gaineko politika orokorrari eta horrek herritarrentzako oinarrizko zerbitzuetan dituen ondorioei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregela-

menduaren 183. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroako Gobernua aplikatzen ari den murrizketa-politikaren aurrean, zeinaren ondorioz Nafarroako erakunde publikoak orain dela gutxi arte ematen ari ziren oinarrizko zerbitzuek okerre egin baitute, eta ehunka lanpostu publiko kenduko direla iragarri ostean, parlamentari honek jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, azal dezan zein den bere politika orokorra enplegu publikoari dagokionez, eta zer ondorio izan ditzakeen horrek herritarrentzako oinarrizko zerbitzuei dagokienez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da indargabetu ditzan mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako laguntzak eta prestazioak murrizten dituzten foru aginduak.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita indargabetu ditzan mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako laguntzak eta prestazioak murrizten dituzten foru aginduak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Orain dela gutxi, Nafarroako Gobernuak mendekotasun egoeran dauden pertsonengan eragina duten bi foru agindu onetsi ditu, legegintzaldi honetan zehar murrizketak ekarri dituzten beste batzuei segida ematen dietenak.

Foru agindu horien bidez, murriztu egiten da mendekotasun egoeran dauden pertsonen zain-tzaileek jasotako zenbatekoa; murrizketa, lehendik % 10 eta % 29 bitartekoa zena, % 13,85era bitartekoa da orain.

Halaber, egiten den beste murrizketa bat da okupazio-tailerretara joaten diren pertsonentzat, lehen, bateragarri zirela prestazio hori eta beren errentari dagokion laguntza, eta hemendik aurrera, berriz, gutxieneko laguntza jasoko dutela.

Uztailaren 13tik aitzinako eskabideen kasuan, berriz, kendu egiten da mendekotasun arina duten pertsonentzako laguntza, nahiz eta hori Gobernuaren apustuetako bat zen.

Laguntzak murriztea ekarriko duen beste osagai bat izanen da aintzat hartuko dela ondarea, laguntzen onuradunen errenta baloratzekoan, eta horrek ekarriko dituela zenbatesten oso zailak izanen diren beherapenak.

Eta azkenik nabarmendu behar da uztailaren 13tik aitzina gutxitu egingen direla eskabideak, Gobernu zentralak arlo honetan aplikatutako murrizketen ondorioz mendekotasun mailak ezabatzen direlako.

Zerbitzuari atxikitako prestazioak arautzen dituen foru aginduari dagokionez, azpimarratu egin beharra dago mendekotasun arina duten pertsonentzako zenbatekoak jaisten direla eta laguntzak desagertzen direla.

Horiek horrela:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako laguntzak eta prestazioak murrizten dituzten 72/2013 eta 732/2012 foru aginduak indargabetu ditzan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat presta dezan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko ekitaldi-programa bat prestatzeari buruzko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

2014an ehun urte beteko dira Julio Caro Baroja historialari, etnografo, hizkuntzalari eta saiakeragile ospetsua jaio zenetik; izan ere, 1914ko azaroaren 13an jaio zen Madrilan, eta 1995eko abuztuaren 18an hil, Beran.

Julio Caro Barojak lan handia egin zuen, zabal bezain sailkatzen zaila, kulturaren eta historiaren arlo ezberdinetan; lan horri esker, hain zuzen ere, Nafarroaren ondarea zaindu eta jendarteratu ahal izan da esparru oso desberdinetan. Horien artean, Lanzko inauteria berreskuratu izana da ekimenik herrikoienetakoa bat.

Bere lan profesionalaz gain –Espainiako humanista ospetsuen eta itzal handieneko bat izan

zen–, Julio Caro Barojak harreman estu-estua izan zuen Nafarroarekin, barojatarren Berako “Itzea” etxearen bitartez. Bere lanen xede eta inspirazio-iturri izan ziren Nafarroako, Euskadiko, Gaztelako, Andaluziako eta Afrika iparraldeko beste hainbeste leku ere.

Espainian jaso zituen aintzatespen nabarmenen artean aipatu beharra dago 1983an Gizarte Zientzien arloko Asturiasko Printzea Saria, 1985ean Espainiako Letren Sari Nazionala eman ziotela eta 1989an Menéndez Pelayo nazioarteko saria jaso zuela. Euskaltzaindiaren, Historiaren Errege Akademiaren eta Espainiako Errege Akademiaren aintzatespena ere jaso zuen.

Nafarroako Gobernuak, berriz, ematen duen saririk handiena eman zion: Foru Komunitatearen Urrezko Domina. Domina, zeina 1984an eman baitzitzaion, José María Lakarra historialariarekin partekatu zuen.

Nafarroako Gobernuak Julio Caro Barojari Nafarroaren Urrezko Domina emateko arrazoiaren artean nabarmendu zuen herrialdeko errealitate historiko, kultural eta soziala ezagutarazte aldera bere bizitza profesionalean zehar egindako lan handia.

Egun hartan berean Nafarroaren Seme Kutunaren titulua ere eman zitzaion. Julio Caro Baroja izena daramate, hain zuzen ere, Nafarroako Museo Etnologikoak eta Iruñeko institutu batek.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. 2014an zehar susta dezan, Julio Caro Barojaren senitartekoekin lankidetzan, bere jaiotzaren mendeurrena ospatzeko ekitaldien programa bat Iruñean eta Beran.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoari proposa diezaion honoris causa doktore titulua ematea, beste unibertsitate batzuek egin duten legez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du manten ditzan ingelesa ikasteko bekak Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen baitu manten ditzan ingelesa ikasteko bekak Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ingelesa ikasteko bekak Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat mantentzeko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Nafarroako Gobernuak erabaki du 2013an ez egitea bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleek ingelesa atzerrian ikasteko beken ohiko deialdia, nahiz eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako berariazko kontusail bat egon.

Beka horiek, zeinek familien eta ikastetxeen aldetik erantzun positiboa izan baitute, etengabe eman izan dira gutxienez ere azken hamabost urteotan.

Ekitaldi guztietan egon da berariazko kontusail bat bekak emateko. Halatan, kontusailak 274.000 euro zeuzkan 2004an, "Ikaslerik hoberenendako laguntzak, hizkuntzak hobetzeko eta eskolen arteko trukaketak egiteko" izenarekin. 2009an "Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleendako

ikaslaroak atzerrian" izena hartu zuen kontusailak, eta 700.000 euro zeuzkan. 2011n, "Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleendako ikaslaroak" kontusailak 220.000 euro zeuzkan. 2012an 223.600 euro zeuzkan, 2013rako luzatutako aurrekontuan bezala.

2013an beken deialdia ez egiteko erabakia ez dator bat Hezkuntza Departamentuak atzerriko hizkuntzak, bereziki ingelesa, ikasle nafarren artean bultzatze aldera egindako lanarekin. Hezkuntzako kontseilari José Iribasek berak defendatzen zuen iragan urtarrilean Ingelesez Ikasteko Programa Nafarroa osora hedatzea, eta are adierazi zuen ikasle nafar guztiek dutela ingelesez ondo jakiteko eskubidea.

Sorterrian ikasitako hizkuntzak hizkuntza hori hitz egiten den herrialdean ikasi eta hobetzeko aukerak egiten du bekak tresna eraginkor, baliagarri, beharrezko eta muntaduna izatea hizkuntzen ikaskuntzan.

Hezkuntza Departamentuak ondokoa zioen aurreko urteetan, programa hori egiteari buruzko arrazoiak ematean:

"Programa hau ahaleginari emandako sari gisa hartu behar da, ikasleek beren gaitasun komunikatibo eta pertsonala garatzeko eta beren esperientzia kultural eta pertsonala handitzeko aukera gisa."

"Hartara, ikasleak errealitate berri batean murgiltzeko aukera izanen du, eta bere prestakuntza eta etorkizuneko garapena aberastuko."

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du:

1. Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek ingelesez ikasteko beken programa gara dezan 2013an.

2. Beken kontusail hori manten dezan etorkizunean Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, behar adinako zuzkidura ekonomikoa eginez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mantendean Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa (Evena), sektorearen eta Nafarroa Jatorrizko Deituraren garapenaren zerbitzuan dagoen entitate publiko gisa.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen mantendean zezan Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa (Evena), sektorearen eta Nafarroa Jatorrizko Deituraren garapenaren zerbitzuan dagoen entitate publiko gisa. Mozio hori 2013ko otsailaren 4ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu 24 sahararren aurka Rabateko auzitegi militar batek egindako epaiketa politiko-militarra, nazioarteko araudia urratu duena eta torturapean lortutako aitortpenetan oinarritu dena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

1. "Nafarroako Parlamentuak salatzen du epaiketa politiko-militar honek nazioarteko araudia urratu duela eta torturapean lortutako aitortpenetan oinarritu dela.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du Rabateko auzitegi militarrek emandako epaia oinarritzkoenak diren ekitate- eta justizia-arauen aurkako atentatu bat dela, Mendebaldeko Saharan giza eskubideen defentsa aktiboa egitea izan baita epaitutako pertsonen egindako delitu bakarra.

3. Nafarroako Parlamentuak Marokoko agintariak premiatzen ditu bertan behera utz ditzaten

Sahara Mendebaldean giza eskubideak defendatzen dituzten ekintzaileen aurkako jazarpenak eta aske utz ditzaten Marokoko eta Mendebaldeko Saharan espetxeetan dauden preso politikoak.

4. Espainiako Gobernuari eskatzen dio dagokion zeregina bere gain har dezan eta babes dezan, bai bere jardunean, bai Europar Batasunaren esparruan aritzen denean, gatazka konpontzeko prozesua, Nazio Batuen ebazpenekin bat.

5. Erabaki hau helaraztea arestian aipatutako gobernu eta erakunde publiko guztiei, bai eta Nazio Batuen idazkari nagusiari eta Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi-komisarioari ere."

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

**Galdera, Nafarroako Gobernuak San Juan de Dios Ospitalearekiko itun-
rako dituen planei buruzkoa.**

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak San Juan de Dios Ospitalearekiko itunerako dituen planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

2013ko otsailaren 7an Osasun Batzordeak San Juan de Dios Ospitalera egindako bisitaren ostean, eta bisita hartan jasotako informazioa ikusirik ostean, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak zer plan ditu San Juan de Dios Ospitalearekiko itunari begira?

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

**Galdera, Donejakue autobidea eta Errioxa lotzeari dagokionez Nafarroako
Gobernuak duen informazioari eta eginiko zuzemenei buruzkoa.**

GREGORIO GALILEA ARAZURI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Gregorio Galilea Arazuri jaunak aurkeztutako galdera, Donejakue autobidea eta Errioxa lotzeari dagokionez Nafarroako

Gobernuak duen informazioari eta eginiko zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Sustapen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Gregorio Galilea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, arloko kontseilariak Sustapen Batzordean ahoz erantzun dezan.

Errioxako lehendakariak orain dela gutxi iragarri du Sustapen Ministerioak 10 milioi euro jarri dituela, zeinak 2013ko aurrekontuko 9,4 milioiei gehitu behar baitzaizkie, Bideko Autobiaren Nafarroa eta Errioxa arteko lotunea bukatzeko, eta

autobia hori 2015ean bukatuta egonen litzatekeela.

Galderaren testua

- Nafarroako Gobernuak zer informazio dauka horri buruz?
- Nafarroako Gobernua zer zuzemen ari da egiten obra hori bukatzeko?

Iruñean, 2013ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Gregorio Galilea Arazuri

Galdera, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7aren tributuek esleipena arautzen duen Parlamentuaren agindua betetze aldera eginiko urratsei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7aren tributuek esleipena arautzen duen Parlamentuaren agindua betetze aldera eginiko urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, kasuko Iragan abenduaren 20an, Parlamentuko Osoko Bilkurak foru lege bat onetsi zuen, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena.

Bertan ezartzen denez, zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetara bideratutako 100eko 0,7tik heldu diren kontusailletako zenbatekoa soilik bideratu ahalko da Nafarroako gobernuaz kanpoko erakundeek eta elkarteek xede jakin batzuk lortze aldera egindako lanera.

Ahozko galdera

Zer urrats egin dira legezko agindu hori betetze aldera?

Abian jarri al dira kasuko deialdiak?

Zer aurreikuspen egin ditu Gobernuak?

Iruñean, 2013ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza

Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak aurreikusi ote duen egiaztagiriak lortzeko deialdi bat egitea, egun langileak direnak osasun larrialdietako teknikari gisa kualifikatze aldera, eta titulazio hori Nafarroako BHIetakoren batean emanen den.

PEDRO RASCÓN MACÍAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro Rascón Macías jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak aurreikusi ote duen egiaztagiriak lortzeko deialdi bat egitea, egun langileak direnak osasun larrialdietako teknikari gisa kualifikatze aldera, eta titulazio hori Nafarroako BHIetakoren batean emanen den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Pedro Rascón Macías jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

• Hezkuntza Departamentuak aurreikusita al dauka beste kreditazio-prozesu bat deitzea, egun-go langileak osasun-larrialdietako teknikari gisa kualifikatze?

• Osasun-larrialdietako teknikari titulua lortzeko ikasketak egin ahalko dira araudia betetzen duen Nafarroako BHIren batean?

• Arlo horretako online prestakuntza-eskaintza berrikutuko al da 2013-2014 ikasturterako, aurreko ikasturteetan egin den bezala?

Iruñean, 2013ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Pedro Rascón Macías

Galdera, zerga-erregularizaziorako prozesuaren balantzeari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, zerga-erregularizaziorako prozesuaren balantzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan.

Gobernuak orain dela gutxi egin du balantzea UPNk eta PSNk hitzartutako zerga-erregularizaziorako prozesua dela-eta, iragan abenduaren 31n bukatu baitzen.

27.305.482 euroko diru-bilketa ekarri duela adierazi da, zergak, interesak eta errekarquak batuta. Kopuru horretatik, 6,3 milioi BEZari dagozkie; 5,8

milioi, oinordetzei; 5,7 milioi, PFEZari, eta 3,5 milioi, ondareari.

Orobat adierazi da prozesuari esker azaleratu dela kanpoan ezkutatutako 396.133.762 euroko ondarea, ia osorik preskribituta dagoena eta kasu askotan Suitzatik heldu dena.

Harrigarri samarra da azaleratutako 396 milioi eurotik gorako ondare ezkutu horrek 3,5 milioi euroko diru-bilketa sortu izana 132 aitortpenetan (3 milioi euro batez beste); izan ere, diru-kopuru horri 2012an indarrean zegoen tarifa aplikatze hutsak jadanik diru-bilketa handiagoa ekarri beharko zuen.

Deigarria da, orobat, oinordetzetan 5,8 milioi euro lortu izana.

Hauek dira galderak:

– 396 milioi horiek 2011ko ekitaldiko ondare-aitortpenetan, 2012an egindakoetan, sartu al dira?

– Zenbateko diru-bilketa eragin dute 2012an?

– Zer ekitaldiri dagozkio Gobernuak bere komunikazioan aipatzen zituen ondare bidezko diru-bilketa gehigarriko 3,5 milioiak?

– Zer ekitaldiri dagozkio Gobernuak bere komunikazioan aipatzen zituen oinordetza bidezko diru-bilketa gehigarriko 5,8 milioiak?

– Oinordetzaren gaineko zergari dagozkion 47 aitortpen osagarri edo ordezkio horien atzean zer nolako egoerak daude nagusiki?

Iruñean, 2013ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Ospitaleko eta Ubarmin Klinikako gosarien eta askarien finantziario buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleko eta Ubarmin Klinikako gosarien eta askarien finantziario buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Ospitaleko eta Ubarmin Klinikako sukaldeak irekita daude oraindik, ospitaleratutako gaixoei gosariak eta askariak emateko.

Jakin nahiko nuke nork finantzatzen dituen gosari eta askari horiek, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ala Mediterránea de Catering enpresa adjudikazio-hartzaileak.

Iruñean, 2013ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak Goi Mailako Kontserbatoriora eta Kontserbatorio Profesionalera eginiko bisitei buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak Goi Mailako Kontserbatoriora eta Kontserbatorio Profesionalera eginiko bisitei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza ikuskaritzako zerbitzuak zenbat bisita egin ditu azken hamar urteotan Goi Mailako Kontserbatoriora eta Kontserbatorio Profesionalera? Zenbat kexa edo espediente ireki zaizkie irakasleei, bisita horien ondorioz?

Iruñean, 2013ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Erronkariko elektrizitate-hornidurari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Erronkariko elektrizitate-hornidurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, Erronkariko elektrizitate-hornidurari buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Azken ekaitzaren ondorioz Erronkarin argindarra beste behin moztu zela ikusita, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak Erronkarin elektrizitate-hornidura egiten duten enpresei azken bost urteotan irekitako espediente-kopurua.

Espediente horien azken emaitza eta egungo egoera.

Espediente horiek direla-eta enpresa horiei ezarritako zehapenen kopurua.

Nafarroako Gobernuak espediente horiek direla-eta izandako diru-sarrerak.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2013-2014 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2013-2014 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERARENTESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du,

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Iragan otsailaren 1ean, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulazio kanpaina abiarazi zuen, 2013/2014 ikasturterako. Heldu den otsailaren 25ean argitaratuko dira onartuen behin-behinekoko zerrendak. Horiek horrela, galdera hau aurkeztu dugu:

Zenbat hurrek ez dute ikaspostua lortu 2013/2014 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen mailarako, lehen aukera gisa hautatu duten ikastetxean?

Zenbat hurrek lortu dute 2013/2014 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen mailarako, bigarren aukera gisa hautatu duten ikastetxean?

Zenbat hurrek ez dute ikasposturik lortu 2013/2014 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen mailarako, eskatzen zituzten ikastetxeetarik batean ere?

Iruñean, 2013ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Nasertic enpresa publikoaren jarduerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nasertic enpresa publikoaren jarduerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Hauxe jakin nahi dut Nasertic enpresa publikoaren jarduerari berriari eta xedeari buruz:

1. Zer esparrutakoa izanen da enpresa horren jarduerari?

2. Nafarroan ba al dago esparru horretan jarduten duen enpresa pribaturik?

3. Nafarroako Gobernuak neurtu al du esparru hori betetzen duten egungo enpresetan Nasertic enpresaren jarduerak izanen duen eragina?

4. Zer argudio, helburu eta azterlanek babesten dute enpresa publiko horrek xede hori izatea? Kasuko dokumentazioa bidaltzeko eskatzen dugu.

Iruñean, 2013ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, produktuen zuzeneko salmentarako bidea ematen duen legearen garapenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, produktuen zuzeneko salmentarako bidea ematen duen legearen garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Hauxe jakin nahi dut produktuen salmenta zuzena ahalbidetzen duen legeari buruz, zeinak zehazki landa eremuari eragiten baitio:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez du oraindik garatu aipatu foru legea?

Nafarroako Gobernuak noiz ekinen dio lege hori garatzeari?

Iruñean, 2013ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak Vázquez de Mella HLHIPko zuzendaritza-taldeak, gutun bidez, igorritako proposamenaren berri ote duen, non Sarrigurenen bizi diren eta Haur Hezkuntzako 1. mailan eskolatzeko adinean dauden umeei ikaspostu bat eta bestelako abantailak eskaintzen zaizkien.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mari-sa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera hau erretiratu izanari dagokionez: "Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak Vázquez de Mella HLHIPko zuzendaritza-taldeak, gutun bidez, igorritako proposamenaren berri ote duen, non

Sarrigurenen bizi diren eta Haur Hezkuntzako 1. mailan eskolatzeko adinean dauden umeei ikaspostu bat eta bestelako abantailak eskaintzen zaizkien" Galdera hori 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-taldea, zenbait azpiegitura aztertzea, zalantzazko errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dieneak.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da 2013ko otsailaren 18ko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakiaren argitalpenean (2013ko otsailaren 20ko 20. NPAO). Aipatu erabakia lan-talde honen osaerari eta funtzionamenduari buruzko arauen gainekoa zen: "Lan-taldea, zenbait azpiegitura aztertzea, zalantzazko errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dieneak." Hona erabakiaren testu osoa:

"Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2013ko otsailaren 13an, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzardeak erabaki zuen, Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, lan-talde bat eratzea zenbait azpiegitura aztertze aldera, zalantzazko errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dieneak, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion hartu beharreko erabakiak har zitzan lan-talde horren osaerari eta eratzeari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean hasi ahal izan dadin, ondokoa ERABAKI DA:

1. Lan-taldea osatuko dute parlamentu-talde bakoitzeko kide banak eta Ekonomia, Ogasun,

Industria eta Enplegu Batzardeko atxiki gabeko foru parlamentariak.

2. Epe bat ematea, 2013ko otsailaren 22ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde bakoitzak aipatu lan-talderako ordezkaria izenda dezan, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzardeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko taldeko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezkari dezan.

3. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak lan-taldea zein egunetan eratu eta lanean hasiko den erabakiko du.

4. Azterlana egiteko epea bukatuko da lan-taldea eratu eta hiru hilabetera.

Behin txostena eginda, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzardeko kideei helaraziko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

5. Erabaki hau parlamentu-taldeetako eledunei eta Manu Ayerdi Olaizola jaunari jakinaraztea.

6. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea."

Iruñean, 2013ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

